

2017an, Debagoiena eskualdea izan da Euskal Autonomia Erkidegoan berrikuntzaren buru


Donostia izan da nagusi hiriburuetan, gero Vitoria-Gasteiz eta, ondoren, Bilbo

Eustaten datuen arabera, Euskal AEn 2017an 10 langile eta gehiagoko enpresa **berritzaileak** –berrikuntza teknologikoarekin edo teknologikorik gabea– % 35,2 izan zen. Gipuzkoako **Debagoiena** eskualdea (% 46,1) gailendu zen –**seigarren urtez elkarren segidan lehen postuan**–, bai eta **Arabako Besteak** (% 42,2) eta Bizkaian **Durungaldea** (% 37,8) ere.

Beste eskualde batzuk Euskal AEko batez bestekotik gora daude: **Kantauri Arabarran** 10 langile eta gehiagoko enpresen % 39,5 berritzaile gisa, **Goierri** (% 38,6), **Tolosa** (% 37,5), **Donostialdea** (% 37,4), **Debabarrena** (% 37,0), **Arabako Errioxa** (% 36,9), **Markina-Ondarroa** (% 36,3) eta **Arabako Lautada** (% 35,5).

Lurralde bakoitzean enpresa berritzaileen ehuneko txikienak dituzten eskualdeetan honako hauek nabarmendu behar dira: **Arratia-Nerbioi** (% 28,8) Bizkaian, **Bidasoa Beherea** (% 29,6) Gipuzkoan eta, esan bezala, batez bestekotik gora egon arren ere, **Arabako Lautada** (% 35,5).

Berrikuntza egindako 10 langile eta gehiagoko establezimenduen portzentajea, eskualde eta hiriburuetan, 2017an



Iturria: Eustat. Berrikuntzaren inkesta

Euskal hiriburuetan, **Donostia** aurrena, % 39,0ko enpresa berritzaileekin, gero **Vitoria-Gasteiz** (% 35,0) eta, ondoren, **Bilbo**, 2017an 10 langile eta gehiagoko enpresa berritzaileen % 32,9rekin.

Berrikuntza-jardueretako gastuak direla eta, 10 langile eta gehiagoko enpreetan, hiriburuak dauden eskualdeetan kontzentratzen dira kopuru nagusienak. Hala ere, kontzentrazio-maila desberdina da, zehazki Gipuzkoan. Horrela, bai Araban bai Bizkaian, hiriburuak dituzten eskualdeek (Arabako Lautada eta Bilbo Handia, hurrenez hurren) lurraldearen gastuaren % 87,3 eta % 78,1 dakarte, eta, Gipuzkoan proportzio hori txikiagoa da, eta Donostialdeak dakar berrikuntzako gastu osoaren % 43,3.

Araban, 374,3 milioitik 326,6 Lautadan gastatzen dira eta Bizkaian 1.137,9 milioitik 888,5 Bilbo Handian. Gipuzkoan, ordea, proportzioa jaitsi egiten da; lurraldeko gastu osoa 733,7 milioi dira, 317,4 Donostialdean. Halaber, nabarmentzekoak dira, 100 milioitik gorako gastua dutenetan, Durangaldea (158,7) Bizkaian eta Goierri (112,6) Gipuzkoan.

Hiriburuetan, bestalde, jarduera berritzaileen inguruko gastuak 317,5 milioi eurokoak dira Vitoria-Gasteizen, 279,3 milioikoak Bilbon eta 211,1 milioikoak Donostian. Alegia, lurraldeko % 84,8, % 24,5 eta % 28,8, hurrenez hurren.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62